

## **DIRU-SARRERAK:**

Enpresaren sarrera nagusia sarreraren salmenta izango litzateke eta bi prezio mota egongo lirateke: online (15 euro) edo leihatilan (10 euro). Bestetik, enpresaren barruan kontsumitutako produktuek ere diru-sarrera handiak sortzen dituzte, hala nola alkoholik gabeko edariak, hau da freskagarriak, ura, zukuak, batidoak eta snack-en, hala nola patata frijituak, gozokiak, pizzak. Era berean, edari eta snack-ak barne hartzen dituzten konbo bereziak eskaintzea aukera eraginkorra izan daiteke. Horrez gain, ekitaldi bereziak antolatzea ere diru-sarrera iturri garrantzitsua da. Adibidez, gai-festak edo urtebetetze eta eskola festak bezalako ekitaldi bereziak antolatzeak jende gehiago erakartzen du. Aldi berean, ekitaldi pribatueterako alokatu daiteke, hala nola graduazio festetarako. Publizitateari dagokionez, lokalean bertan publizitatea egiteko espazioak eskaini daitezke, adibidez, led pantailak. Horrez gain, babesleak aurki daitezke, gazte publikoarekin konektatu nahi duten markekin, hala nola fresgarriak, teknologia, arropa markekin, akordioak lortuz. Beste diru-sarrera iturri bat diskotekaren logotipoarekin edo izenarekin pertsonalizatutako artikuluak saltzen. Horretaz gain, ekitaldiko argazkiak prezio merke batean saltzea ere aukera bat da. Azkenik, kidetza txartelak edo promozioak eskaintzea oso onuragarria izan daiteke. Kidetza txartelak hainbat abantaila eskaintzen ditzakete, hala nola deskontuak, ilaran lehentasuna edo Vip eremuetara sartzea. Taldeentzako promozioak ere egin daitezke, taldeentzako deskontuak edo taldeak antolatzen dituenarentzako sarrera dohainik eskainiz.